SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01
SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01



## 2023KO ABENDUAREN 1eko BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2023-12-01.
Hasiera ordua: 09:00.
Bilkura mota: berezia, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU
Patxi Castillo Graciarena
Maria Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
Jose Esteban Aguirre Zubieta
Francisco Larrechea Lazcano
HERRIRAKO
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurrondo

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Ines R. Matxiarena Aldalur
Adela Arlegi Goienetxe
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Angel Pombar Sainz

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

**1. 2023/40 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (IBARDINGO UR BELTZEN ETA EURI-UREN SAREETAKO OBRAK).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2023ko azaroaren 29an

## ACTA DE LA SESIÓN DE 1 DE DICIEMBRE DE 2023.

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 01-12-2023.
Hora comienzo: 09:00.
Tipo sesión: extraordinaria, 1ª convocatoria.

ASISTEN:

EH BILDU
Patxi Castillo Graciarena
María Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
José Esteban Aguirre Zubieta
Francisco Larrechea Lazcano
HERRIRAKO
José Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurrondo

AUSENCIAS JUSTIFICADAS:
Inés R. Matxiarena Aldalur
Adela Arlegi Goienetxe
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Ángel Pombar Sainz

ALCALDE (preside la sesión):
Aitor Elexpuru Egaña

SECRETARIO: Miguel José Belarra Tellechea, levanta acta del acto.

ASUNTOS TRATADOS (incluidos en el orden del día de la convocatoria realizada al efecto):

**1.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 2023/40: GENERACIÓN DE CRÉDITOS POR INGRESOS (OBRAS DE REDES DE FECALES Y PLUVIALES DE IBARDIN).**

El alcalde explica el expediente y el secretario el procedimiento, tras lo cual se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- Informe emitido por la interventora el día

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Ibardingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen elkarteak egin beharreko ekarpen osagarriarengatik Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak berritzeko obretarako. Obren esleipena hutsik geratu zenez, ez da jasoko ebazpen honen bidez emandako dirulaguntza: 245/2023 Ebazpena, ekainaren 28koa, Enpresa Politikako, Nazioarteko Proiekzioko eta Laneko zuzendari nagusiarena.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:
1-1602-60900. Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak birgaitzea. 146.015,33 €.
Zenbateko osoa, 146.015,33 €.

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu-sailarekin finantzatuko dela:
1-77000. Hitzarmena urbanizazioa Ibardingo elkartea. 146.015,33 €.
Zenbateko osoa, 146.015,33 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA diru-sarreren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2023/40). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

**2. 2023/41 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (IBARDINGO UR BELTZEN ETA EURI-UREN SAREETAKO OBRAK).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Ez dagoela kreditu nahikorik Ibardingo ur beltzen eta euri-uren sareetako obrak egiteko.

29 de noviembre de 2023, que considera necesario tramitar expediente de modificación presupuestaria para generar créditos por la aportación complementaria que debe realizar la Agrupación de comercio, hostelería y servicios Ibardin, A.I.E. para las obras de renovación de redes de pluviales y fecales de Ibardin. Al haber quedado desierta la licitación de las obras, no se va a percibir la subvención concedida por Resolución 245/2023, de 28 de junio, de la directora general de Política de Empresa, Proyección Internacional y Trabajo.

- Que la aplicación presupuestaria de gastos que requiere crédito es la siguiente:
1-1602-60900. Rehabilitación redes pluviales y fecales de Ibardin. 146.015,33 €.
Importe total, 146.015,33 €.

- Que el gasto se financiará con la siguiente partida de ingresos:
1-77000. Convenio Agrupación Ibardin urbanización. 146.015,33 €.
Importe total, 146.015,33 €.

De conformidad con lo establecido en el artículo 218.2 de la Ley Foral 2/1995, de Haciendas Locales de Navarra, en la Base de Ejecución 13ª del Presupuesto en vigor, y en el artículo 33.2 del Decreto Foral 270/1998, por el que se desarrolla la Ley Foral 2/1995 en materia de presupuestos y gasto público,

**por unanimidad** SE ACUERDA aprobar el expediente de generación de créditos por ingresos (2023/40). La modificación presupuestaria entra en vigor con este acuerdo.

**2.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 2023/41: SUPLEMENTO DE CRÉDITO (OBRAS DE REDES DE FECALES Y PLUVIALES DE IBARDIN).**

El alcalde explica el expediente y el secretario el procedimiento, tras lo cual se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- Que no hay crédito suficiente en la partida de gastos para las obras de redes de

BERAKO UDALA
herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA
IFK: P 31 25000D
www.bera.eus
bera@bera.eus

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko azaroaren 29an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-1602-60900. Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak birgaitzea. 16.223,93 €.
Zenbateko osoa, 16.223,93 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 16.223,93 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/41 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu

fecales y pluviales de Ibardin.

- Que por Resolución de Alcaldía 55/2023, de 7 de marzo, se aprobó la liquidación del Presupuesto de 2022.

- Que el informe emitido por la interventora municipal el día 29 de noviembre de 2023 manifiesta que es preciso tramitar expediente de modificación presupuestaria, suplemento de crédito, para poder llevar a cabo la inversión. Señala la siguiente partida de gastos que requiere suplemento:
1-1602-60900. Rehabilitación redes pluviales y fecales de Ibardin. 16.223,93 €.
Importe total, 16.223,93 €.

- Que en el citado informe se propone su financiación con cargo a la partida 1-87000, Remanente de Tesorería para gastos generales, por importe de 16.223,93 €.

De conformidad con lo establecido en los artículos 202, 213 y 214 de la Ley Foral 2/1995, de Haciendas Locales de Navarra y en la Base de Ejecución 9ª del Presupuesto en vigor,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria nº 2023/41, suplemento de crédito, referenciado.

2.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el tablón de anuncios municipal, a fin de que quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.

3.- Advertir que, si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, el acuerdo de aprobación inicial se entenderá aprobado definitivamente, entrando en vigor una vez transcurrido el período de exposición pública.

Si se formularan reclamaciones o alegaciones, el Pleno deberá adoptar acuerdo

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

expreso relativo a la resolución de aquellas y a la aprobación definitiva de la modificación propuesta, que entrará en vigor una vez publicado el texto definitivo en el tablón de anuncios municipal.

**3. IBARDIN MERKATARITZA-POLIGONOKO EURI-UREN ETA UR BELTZEN SAREAK HOBETU ETA BIRGAITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA.**

**3.- EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DE MEJORA Y REHABILITACIÓN DE LAS REDES DE PLUVIALES Y FECALES DEL POLÍGONO COMERCIAL DE IBARDIN.**

Ikusirik Ibardin merkataritza-poligonoko euri-uren eta ur beltzen sareak hobetu eta birgaitzeko obrak kontratatzeko espedientea, agiri hauek dituena:

- IBARDIN MERKATARITZA-POLIGONOKO EURI-UREN ETA UR BELTZEN SAREAK HOBETU ETA BIRGAITZEA izenburuko proiektua, Daniel Apellániz De La Fuente bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzia, 2023ko martxoan. Horretarako deitutako lizitazioa hutsik geratu ondoren, jatorrizko proiektuaren aurrekontua %51,25 handitu da, teknikariak 2023ko irailean egindako txostenaren arabera.

- Kontratuaren balio zenbatetsia 439.207,96 eurokoa da.

- Beharren txostena eta proiektuaren zuinketa akta, udal arkitekto teknikoak eginak 2023ko azaroaren 7an.

- Kontratazioaren plegu arautzailea.

- Idazkariak 2023ko azaroaren 28an egindako txostena.

- Kontu-hartzaileak 2023ko azaroaren 29an egindako fiskalizazio-txostena.

Kontuan hartuta aurretik izapidetutako espediente bat dela.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko

Visto expediente de contratación de las obras de mejora y rehabilitación de las redes de pluviales y fecales del polígono comercial de Ibardin, que consta de la siguiente documentación:

- Proyecto de MEJORA Y REHABILITACIÓN DE LAS REDES DE PLUVIALES Y FECALES DEL POLÍGONO COMERCIAL DE IBARDIN, redactado por el ingeniero de caminos, canales y puertos Daniel Apellániz De La Fuente, de fecha marzo de 2023. Tras quedar desierta la licitación convocada al efecto, se ha incrementado el presupuesto del proyecto original en un 51,25%, según informe emitido por el técnico redactor en septiembre de 2023.

- El valor estimado del contrato asciende a la cantidad de 439.207,96 euros.

- Informe de necesidad y acta de replanteo del proyecto, emitidos por el arquitecto técnico municipal en fecha 7 de noviembre de 2023.

- Pliego regulador de la contratación.

- Informe de Secretaría, de 28 de noviembre de 2023.

- Informe de fiscalización de Intervención, de 29 de noviembre de 2023.

Teniendo en cuenta que se trata de un expediente de tramitación anticipada.

De conformidad con lo establecido en la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos y los artículos 224 y siguientes de la Ley Foral 6/1990

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

artikuluetan ezarritakoaren arabera,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Onestea lehen aipatutako proiektua, IBARDIN MERKATARITZA-POLIGONOKO EURI-UREN ETA UR BELTZEN SAREAK HOBETU ETA BIRGAITZEA izenburukoa, haren aurrekontuaren eguneraketarekin batera.

2. Onestea Ibardin merkataritza-poligonoko euri-uren eta ur beltzen sareak hobetu eta birgaitzeko obrak kontratatzeko espedientea, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua esleitzeko publizitate komunitariorik gabeko prozedura irekiaren bidez.

3. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.

4. Gasturako baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo suntsiarazpena, dagokion ekitaldian dagozkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.

5. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

**4. LAGUNTZEN DEIALDIA, BETEARAZ DAITEZEN PARTAIDETZAZKO TOKI GARAPENAREN ESTRATEGIAK, SUSTATZAILE PUBLIKO ETA PRIBATUENTZAT, 2023RAKO. LEADER-NEKAZARITZA POLITIKA ERKIDEAREN PLAN ESTRATEGIKOA, NAFARROAN, 2023-2027.**

2023ko azaroaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (234. zenbakia) Cederna Garalur elkartearen dirulaguntzen deialdi hau argitaratu zen: laguntzak, betearaz daitezen partaidetzazko toki garapenaren estrategiak, sustatzaile publiko eta pribatuentzat, 2023rako. LEADER-Nekazaritza Politika Erkidearen Plan

de la Administración Local de Navarra,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Aprobar el proyecto de MEJORA Y REHABILITACIÓN DE LAS REDES DE PLUVIALES Y FECALES DEL POLÍGONO COMERCIAL DE IBARDIN, antes reseñado, junto a la actualización de su presupuesto.

2.- Aprobar el expediente de contratación de las obras de mejora y rehabilitación de las redes de pluviales y fecales del polígono comercial de Ibardin, y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto, sin publicidad comunitaria.

3.- Aprobar el pliego regulador de la contratación.

4.- Autorizar el gasto. El gasto cuya tramitación se anticipa y, en su caso, la adjudicación o resolución, quedan sometidos a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones de que se trate en el ejercicio correspondiente.

5.- Publicar anuncio de licitación en el Portal de Contratación de Navarra.

**4.- CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA EJECUCIÓN DE LAS ESTRATEGIAS DE DESARROLLO LOCAL PARTICIPATIVO: PROMOTORES PÚBLICOS Y PRIVADOS, PARA EL 2023. LEADER-PEPAC EN NAVARRA 2023-2027.**

En el Boletín Oficial de Navarra nº 234, de 10 de noviembre de 2023, se publicó la convocatoria de ayudas de la Asociación Cederna Garalur a la ejecución de las estrategias de desarrollo local participativo: promotores públicos y privados, para el 2023. LEADER-PEPAC en Navarra 2023-2027. Submedida

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

Estrategikoa, Nafarroan, 2023-2027. 7119.02.01 azpineurria.

MENDIKO BIZIKLETA PARKEA proiektuari ekiteko laguntza eskatzeko asmoa dagoela ikusita,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. MENDIKO BIZIKLETA PARKEA proiekturako laguntza eskatzea aipatutako deialdian.

2. Alkatea edo haren legezko ordezkoa izendatzea laguntza izapidetzeko ordezkari.

**5. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEA DESEGITEKO, BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA ERALDATU ETA BERREGITURATZEKO ETA BORTZIRIETAKO BERDINTASUN ZERBITZUARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA DESEGITEKO HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik zer egitura instituzional dagoen indarrean Bortzirietako Udalen arteko lankidetzarako, zeinak barne hartzen baititu Euskara Mankomunitatea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea, bai eta 2021eko maiatzaren 28an berdintasunaren arloan formalizatutako administrazioen arteko toki-arteko lankidetza-hitzarmena ere.

Tokiarteko lankidetzarako erakunde egitura horren inguruan egindako aldez aitzineko azterlanak edo behaketak ikusita, ondorio hau atera da: egitura horren bidez ematen diren zerbitzu publikoak integratzeko interes publikoa eta bideragarritasuna, eta, horretarako, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitate bat egituratu behar da.

Aldez aitzineko azterlan edo behaketa

7119.02.01.

Vista la intención de solicitar ayuda para acometer el proyecto de PARQUE DE BICICLETA DE MONTAÑA,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Solicitar la ayuda para el proyecto de PARQUE DE BICICLETA DE MONTAÑA en la convocatoria señalada.

2.- Nombrar como representante en la tramitación de la ayuda al alcalde, o quien legalmente le sustituya.

**5.- APROBACIÓN INICIAL DE LA DISOLUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD DE EUSKARA DE BORTZIRIAK Y DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES DE BASE, DE LA TRANSFORMACIÓN Y REESTRUCTURACIÓN DE LA MANCOMUNIDAD DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS Y DE LA RESOLUCIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN RELATIVO AL SERVICIO DE IGUALDAD DE BORTZIRIAK.**

A la vista de la vigente estructura institucional de cooperación interlocal entre los Ayuntamientos de Bortziriak, que contempla a las Mancomunidades de Euskara, Servicios Sociales de Base y de Gestión de Residuos Sólidos Urbanos, así como al Convenio de colaboración interadministrativo de carácter interlocal formalizado con fecha 28 de mayo de 2021 en materia de igualdad.

A la vista de los estudios o trabajos de análisis previos realizados en relación con dicha estructura institucional de cooperación interlocal, que han concluido el interés público y la viabilidad de la integración de los servicios públicos que se prestan a través de la misma, mediante la estructuración de una Mancomunidad de Servicios de Bortziriak.

Considerando que de dichos estudios o

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

horietatik ondorioztatzen denez, euskara, oinarrizko gizarte zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasun arloko lankidetzan garatzen eta ematen diren jarduera eta zerbitzuak integratzeko prozesua gauzatzeko eta artikulatzeko irtenbiderik hoberena honako hau da:

trabajos de análisis previos se deriva que la solución más óptima para la materialización y articulación del proceso de integración de las actividades y servicios que se desarrollan y prestan en las materias de Euskara, Servicios Sociales de Base, Gestión de Residuos Sólidos Urbanos y colaboración en materia de Igualdad de forma conjunta por parte de los Ayuntamientos de Bortziriak, es la de:

- Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzea eta berregituratzea, haren jarduera-eremua eta xedea zabaltzeko. Bertan, honako hauek sartuko dira: euskara zerbitzu mankomunatuak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasuna. Horretarako, erakundearen estatutu-egitura aldatuko da eta Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea bihurtuko da.

- Proceder a la transformación y reestructuración de la Mancomunidad de Gestión de Residuos Sólidos Urbanos, para la ampliación de su ámbito de actuación y objeto, incluyendo en el mismo la prestación de los servicios mancomunados de euskara, servicios sociales de base, gestión de residuos sólidos urbanos e igualdad, mediante la modificación de su estructura institucional y estatutaria y su transformación en la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak.

- Aldi berean, Euskara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegitea eta likidatzea, eta berdintasunaren arloko hitzarmena suntsiaraztea.

- De forma simultánea, proceder a la disolución y liquidación de las Mancomunidades de Euskara y Servicios Sociales de Base, y a la resolución del Convenio en materia de Igualdad.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 49. artikuluak, Foru Lege beraren 50. artikuluarekin lotuta, eta, bereziki, 50.3 artikuluak xedatutakoa ikusita, bai eta artikulu horietan xedatutako arauak ere, mankomunitateen estatutuak aldatzeko eta desegiteko kasuetarako.

A la vista de lo regulado por el artículo 49 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, en relación con el artículo 50 de la misma Ley Foral, y en particular por el artículo 50.3, y de las reglas reguladas en los mismos para los supuestos de modificación estatutaria y disolución de las Mancomunidades.

Bortzirietako Udalen artean euskararen, oinarrizko gizarte zerbitzuen, hiri hondakin solidoen kudeaketaren eta berdintasunaren arloko lankidetzaren arloetan garatzen eta ematen diren jarduerak eta zerbitzuak integratzeko prozesuaren jarraipen batzorde bat eratu ahal izateko interesa kontuan hartuta.

Considerando el interés de poder constituir una Comisión de Seguimiento del proceso de integración de las actividades y servicios que se desarrollan y prestan en las materias de Euskara, Servicios Sociales de Base, Gestión de Residuos Sólidos Urbanos y Colaboración en materia de Igualdad de forma conjunta por parte de los Ayuntamientos de Bortziriak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, **aho**

El pleno, una vez oída la información, **por**

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

**batez** ERABAKI DU:

1. Bortzirietako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzeko eta berregituratzeko prozedurak hastea onartzea, haren jarduera eremua eta xedea zabaltzeko. Horretarako, honako hauek sartuko dira: euskararen zerbitzu mankomunatuak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasuna. Horretarako, mankomunitatearen egitura instituzionala eta estatutarioa aldatuko dira, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatean bilakatuko da, eta, aldi berean, Euskara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegiteko eta likidatzeko prozedurak abiaraziko dira, eta berdintasun arloko hitzarmena suntsiaraziko da.

2. Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitateari, Euskara Mankomunitateari eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari eraldaketa, berregituraketa eta desegite proiektuak idazteko eskatzea, kasu bakoitzean, bai eta dagozkion administrazio espedienteak izapidetzeko ere, mankomunatutako udalek behin betiko onartu arte.

3. Bortzirietako gainerako Udalekin batera, berdintasunaren arloko hitzarmena suntsiarazteko memoria idaztea, eta hura izapidetzea eta onartzea, formalizazio arauen arabera.

4. Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea, izendatzea haren ordezkari euskararen, oinarrizko gizarte zerbitzuen, hiri hondakin solidoen kudeaketaren eta berdintasun arloan garatzen eta ematen diren jarduera eta zerbitzuen integrazio prozesuaren jarraipen batzordean, Bortziretako Udalekin batera.

5. Erabaki hau jakinaraztea Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitateari, Euskara Mankomunitateari eta Oinarrizko

**unanimidad** ACUERDA:

1.- Aprobar el inicio de los procedimientos de transformación y reestructuración de la Mancomunidad de Gestión de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak, para la ampliación de su ámbito de actuación y objeto, incluyendo en el mismo la prestación de los servicios mancomunados de euskara, servicios sociales de base, gestión de residuos sólidos urbanos e igualdad, mediante la modificación de su estructura institucional y estatutaria y su transformación en la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak, y de forma simultánea, el de los procedimientos de disolución y liquidación de las Mancomunidades de Euskara y Servicios Sociales de Base, y de resolución del Convenio en materia de Igualdad.

2.- Instar a las Mancomunidades de Gestión de Residuos Sólidos Urbanos, de Euskara y de Servicios Sociales de Base a que redacten los correspondientes proyectos de transformación y reestructuración y de disolución, en cada caso, y a la tramitación de los correspondientes expedientes administrativos hasta la correspondiente aprobación definitiva por parte de los Ayuntamientos mancomunados.

3.- Proceder, junto con el resto de Ayuntamientos de Bortziriak, a la redacción de la memoria de resolución del Convenio en materia de igualdad, y a su tramitación y aprobación conforme a las normas de su formalización.

4.- Nombrar a Aitor Elexpuru Egaña, alcalde del Ayuntamiento de Bera, como representante del mismo en la Comisión de Seguimiento del proceso de integración de las actividades y servicios que se desarrollan y prestan en las materias de Euskara, Servicios Sociales de Base, Gestión de Residuos Sólidos Urbanos y colaboración en materia de Igualdad de forma conjunta por parte de los Ayuntamientos de Bortziriak.

5.- Notificar este acuerdo a las Mancomunidades de Gestión de Residuos Sólidos Urbanos, de Euskara y de Servicios

herriko etxeko plaza, 1
31780 BERA
NAFARROA
tel. 948 630 005
IFK: P 31 25000D
www.bera.eus
bera@bera.eus

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/12/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/12/01

Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari, baita Igantziko Udalari ere.

Sociales de Base y al Ayuntamiento de Igantzi.

Beste aztergairik izan gabe, 09:30ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

No habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión a las 09:30 horas, lo que yo, el secretario, certifico.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.

Firmas digitales. Secretario y alcalde.